



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULUGUNEA SA FORU SOZIETATE PUBLIKOAN KOORDINAZIO LANPOSTU BAT (GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUBURU PROFILA) BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK

(deialdiaren kodea: 2025006)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

Lanpostua Erakunde Administrazioaren eta Pertsonen Arloan txertatuko da eta arlo horretako arduradunaren menpe egongo da.

AKSAn gauzatzen duen lanbide jardueran, honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

- Lan aholkularitza eta sor daitezkeen arazoetarako irtenbideak eta alternatibak proposatzea.
- Kudeaketako eta ad-hoc egin beharreko aldizkako txostenak egitea eta haien zabalkundea bermatzea.
- Magnitude ekonomikoen eta kudeaketa adierazleen bilakaera aztertzea
- AKGSako hautaketa prozesuak eta barne sustapenetakoak kudeatzea, bultzatzea eta antolatzea.
- Lan kostuak kontrolatzea, aurrekontuari eta betearazteari dagokienez (Finantzei txostenak egiteko eta APParen barne kontrolerako txostenak).
- Finantza baliabideen jarraipena eta kontrola egitea, eta pertsonen finantzaketa lerroak balidatzea
- Kalitate kudeaketako kontrol prozedurak egitea.
- Gainerako koordinatzaileekin koordinatzea.
- Administrazio orokorreko teknikariak pertsonen eta talentuari buruz egindako zereginak eta arloko administrazio langileak gainbegiratzea
- Arloko lana planifikatu, koordinatu eta gainbegiratzea.
- Lana planifikatzea, jardueren eta mugarrien egutegia ezarri.
- Arloko jardueretan legea betetzen dela ziurtatzea.
- Talde lana sustatzea eta taldekideak motibatzea





Arabako kalkulua Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Enpresaren ezagutza funtzionalean sakondu ahala, pertsonak kudeatzeko beste eginkizun batzuk egingo ditu, eta horretan sakontzen joango da denborak aurrera egin ahala. Eginkizun horiek komunikazio, negoziazio eta lankidetzaren gaitasunak garatzeko aukera emango diote, besteak beste. Hasieratik langileen garapen profesionalaren esparru guztietan parte hartzea izango du helburu.

- Hala badagokio, Administrazioarekin eta Giza Baliabideekin lotutako hainbat proiekturen buru izatea.
- Pertsonen arloko digitalizazioa bultzatzea
- Laguntza Berdintasun Batzordean: AKSaren III. Berdintasun Plana (2025-2028) kudeatzea eta sustatzea eta sindikatuarekin adostutako Plan Operatiboa betetzea.
- Euskara Plana bultzatzea.
- Enplegu baldintzak, hitzarmena eta lan protokoloak eguneratzeko kudeaketa lanak egin eta haiek bultzatzea.
- Absentziak kudeatzea. Absentziak kudeatzeko protokoloa ezartzea.
- Hautaketa prozesuak diseinatu eta negoziatzea.
- Prestakuntza Plana kudeatzea, prestakuntza premien inbentarioa egitea, arlokako informazioarekin eta lanbide profilekin.
- Hautaketa epaimahaietan titular moduan parte hartzea.
- Langileen lanbide profilen inbentarioan eta ebaluazioan parte hartzea.
- Langile bakoitzaren karrera profesionalaren garapen optimoaren jarraipenean parte hartzea.
- Langile berrien harrera, mentorizazio eta jarraipen plana egitea eta garatzea.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek posta elektronikoz bidali beharko dute 2025006@qualisconsultores.es helbidera oinarri orokorretako 3.1) puntuan eskatzen den dokumentazioa (bidalitako mezuak 30 MB baino gehiago hartzen baditu, mezu bat baino gehiago bidali beharko da, bakoitzean baimendutako gehienekoa gainditu gabe).

Eskaerak aurkezteko epea 2025eko abuztuaren 3an amaituko da.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:

- - Zuzenbideko lizentzia, edo gradu baliokidea.
 - Lan Zientzietako lizentziatura, Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako gradua edo baliokidea.
 - Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentzia, edo gradu baliokidea.
 - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentzia, edo gradu baliokidea.
 - Euskara: 3. HE (C1).

LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:

1. FASEA: IZANGAIEN BETEKIZUNAK:

Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).

- Gutxienez, 3 urteko esperientzia egiaztatuta izatea giza baliabideen arloko antzeko lanposturen batean eta 50 langile baino gehiagoko enpresetan.
- Ezagutza espezifikoaren ebaluazioa arlo hauetan:
 - Negoziazio kolektiboa
 - Langileen administrazioa: nomina; Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren RED sistema; SILTRA softwarea: kotizazioa, afiliazioa, GSIN datuak eta ordaindutako ordainsari kontzeptuak.
 - Nominen aplikazio informatikoak.
 - Berdintasunaren inguruko araudia.
 - Laneko arriskuen prebentzioa
 - Lan, sindikatu eta negoziatzio kolektiboaren arloetako legeria.
 - Honako plan hauen diseinua, ezarpena eta jarraipena:
 - Prestakuntza.
 - Jardunaren ebaluazioa.
 - Berdintasuna.
 - Pertsonen garapena.
 - Komunikazioa.

Zinpeko adierazpen bidez egiaztatu behar dira goian adierazitako ezagutza espezifikoak.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna:

- 3. HE: Euskara

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

2. FASEA: MEREZIMENDUAK BALIOESTEA (geh. 25 puntu):

A) Eskatutako ezagutza espezifikoein edo garatu beharreko eginkizunekin lotutako prestakuntza osagarria (geh. 9 puntu):

- Master ofiziala edo baliokidea, gutxienez 60 ECTSkoa, lanpostuaren eginkizunekin lotua: 5 puntu.
- Eskatutako ezagutza espezifikoein edo garatu beharreko eginkizunekin lotutako 300 ordu baino gehiagoko ikastaro ofizialak:
 - Ikastaro 1: 2 puntu
 - 2 ikastaro edo gehiago: 3,5 puntu

. Puntu gehiago berdintasunari buruzko prestakuntzagatik

2. fasean 0,5 puntu gehiago emango zaizkie gutxienez 20 orduko prestakuntza espezifikoa egiaztatzen dutenei honako arlo hauetan:

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna
- Indarkeria matxistaren prebentzioa
- Hizkera inklusiboa eta irisgarritasun teknologikoa.

B) Hizkuntzak (6 puntu):

B.1) Hizkuntza: euskara (geh. 3 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - C2: 3 puntu.

B.2) Hizkuntza: ingelesa (geh. 3 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketarik.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,25 puntu.**
 - B2: **puntu 1.**
 - C1: **2 puntu.**
 - C2: **3 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

C) Esperientzia 3 urtetik aurrera (geh. 10 puntu)::

Aurreko lanpostu bateko esperientzia egokitze jotzeko, ezinbestekoa izango da lanpostu horretan eginkizun nagusi hauek egin izana:

- Lan aholkularitza eta sor daitezkeen arazoetarako irtenbideak eta alternatibak proposatzea.
- Magnitude ekonomikoen eta kudeaketa adierazleen bilakaera aztertzea
- AKGSAko hautaketa prozesuak eta barne sustapenetakoak kudeatzea, bultzatzea eta antolatzea.
- Lan kostuak kontrolatzea, aurrekontuari eta betearazteari dagokienez (Finantzei txostenak egiteko eta APParen barne kontrolerako txostenak).
- Berdintasun planak.
- Enplegu baldintzak, hitzarmena eta lan protokoloak eguneratzeko kudeaketa lanak egin eta haiek bultzatzea.
- Prestakuntza planaren kudeaketa eta/edo karrera profesionalaren garapena
- Langileen administrazio prozesuak kontrolatzea

2 urtetik gorako esperientzia (bete beharreko baldintza den hiru urteko esperientziatik aurrera) azken 6 urteetan, lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak dituzten lanpostuetan.	- Oso egoki betetzen du: 10 puntu. - Nahiko egoki betetzen du: 7,5 puntu. - Egoki betetzen du: 5 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 2,5 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alor dezente dauka: 0 puntu.
--	---





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Urtebete baino gehiagoko esperientzia (bete beharreko baldintza den hiru urteko esperientziatik aurrera) azken 6 urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak dituzten lanpostuetan, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	- Oso egoki betetzen du: 10 puntu. - Nahiko egoki betetzen du: 7,5 puntu. - Egoki betetzen du: 5 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 2,5 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alor dezente dauka: 0 puntu
--	--

Balioespena egiteko:

Honela balioetsiko da:	Baldin eta lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunen ehuneko hau modu frogagarrian islatzen bada:
Oso egoki betetzen du	% 100
Nahiko egoki betetzen du	> % 66 eta < % 100
Egoki betetzen du	> % 33 eta <= % 66
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka	> % 0 eta <= % 33
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alor dezente dauka	% 0

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

Merezimenduen baremoetan, lanbide esperientziaren ondorioetarako, honako hauek balioetsiko dira: hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatik eszedentzian egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babesteko edo erantzukizuna partekatuz norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko xedea duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotzi ahal zaien denbora, eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

3. FASEA: EZAGUTZA TEKNIKOEN PROBAK ETA LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEARI BURUZKO PROBA PSIKOMETRIKOAK

- **Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).**
- Aurrez aurre eta deialdi bakarrean egingo dira.
- Probak egingo zaizkie 1. fasean gaitzat jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten pertsonei. Formula honen arabera egingo da kalkulua:

$$\text{Balio handiena honakoen artean} \left\{ \begin{array}{l} \text{Behin betiko onartutakoen kopurua} \times 0,3 \\ \text{Plaza kopurua} \times 4 \\ 10 \end{array} \right.$$

- Proba psikometrikoak:
 - Proba bat edo gehiago egingo dira izangaiak lanpostuaren profilera eta bete beharreko eginkizunetara egokitzen diren balioesteko.
 - Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat egingo du 4. faserako proposatutako hautagai bakoitzaren inguruan.
- Ezagutza teknikoaren proba:
 - Ariketaren xedea izango da ezarritako denboran galdetegi bati (zenbait erantzunen artean hautatzeko galderak) idatziz erantzutea.
 - Ariketa hori zuzentzean, ondo erantzundakoen kopuruari errore kopuruaren herena kenduko zaio ($V = A - E/3^1$). Erantzun gabeko galderek ez dute zigorrik izango. Azken balioespena ehunenetan moztuko da.²
- Balioespena GAI izango da ezagutza teknikoaren proban 5 puntu edo gehiago lortu eta fase honetako proba psikometrikoetan gai izan direnentzat. Aurrekoa gorabehera, epaimahaiak 5 puntutik beherako beste puntuazio bat ezarri ahal izango du GAI izateko, probak nork egin dituen jakin aurretik.
- Balioespena EZ GAI izango da ezagutza teknikoaren proban 5 puntu baino gutxiago lortu edota proba psikometrikoetan ez gai izan direnentzat.

V= ariketen balioespena, A= ondo erantzundako galderak, E = gaizki erantzundako galderak.
Moztea da hamarrenak ezabatzea borobiltzerik gabe, hamarren jakin batetik aurrera. AKSaren kasuan, bigarren dezimala da hori. Esate baterako, 4,171 eta 4,179 moztuta, 4,17 geratzen dira.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Gaitzat jotzen diren hautagaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Pertsonaren bat GAI EZ BADA edo 3. FASE honetan uko eginez gero, AKGSAk puntuazio onena duen hurrengo pertsonari edo pertsonari probak egin ahal izango dizkie. Horrela, 4. fasera lau puntuaziorik onenak igaro ez arren, hautagaitza kaudimendunen kopuru nahikoa bermatuko da.

4. FASEA: GAITASUNEI ETA EZAGUTZA TEKNIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETA (geh. 20 puntu)

- **Nahitaezkoa da.**
- Gaitasunei eta ezagutza teknikoari buruzko elkarrizketa 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsonari eta 3. fasean gaitzat jo direnei egingo zaie.
- Elkarrizketa hautaketa epaimahaiko kideek egingo dute AKSA sozietatearen egoitzan, eta lanpostuko gaitasun orokorrak, zeharkakoak eta teknikoak balioestea izango du helburu.
- Elkarrizketak bi zati izango ditu:
 - **Gaitasunak:** Honako gaitasun hauek balioetsiko dira: (geh. 12 puntu)
 - Komunikazioa (geh. 2 puntu).
 - Lidergoa eta taldeen kudeaketa (geh. 2 puntu).
 - Autonomia (geh. 2 puntu).
 - Ekimena, emaitzetara orientatzea, erabakitzeko gaitasuna eta aztertze gaitasuna (geh. 2 puntu).
 - Asertibitatea eta malgutasuna (geh. 2 puntu).
 - Negoziazioa eta gatazkak konpontzea (geh. 2 puntu).

Fase honetako puntuazioa aztertutako gaitasunetako bakoitzean eskala honen arabera lortutako puntuazioen batura izango da:

- Gaitasun maila baxua: 0 puntu
- Gaitasun maila ertaina: 1 puntu.
- Gaitasun maila altua: 2 puntu.

- **Ezagutza teknikoa:** Elkarrizketa honetan, ondoko ezagutza hauek balioetsiko dira: (geh. 8 puntu)





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Lan, sindikatu eta negoziazio kolektiboaren arloetako legeria.
Lan kontratazioa (2 puntu)
 - Lan eskubideak eta eginbeharrak (2 puntu)
 - Emakumeen eta gizonen berdintasuna eta laneko arriskuen prebentzioa (2 puntu)
 - Baliabideen kudeaketa eta aurrekontua (2 puntu)
-
- Elkarriketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketako epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
 - Gutxieneko atalase hauek ezartzen dira:
 - Gaitasunen zatia: 6 puntu.
 - Zati teknikoa: 4 puntu.
 - Lau hautagaietakoren bat aurreko puntuan eskatutako gutxieneko atalaseetara iristen ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonek jarraituko dute.
 - Fase hori amaitu ondoren gai diren pertsonak lau baino gutxiago badira, hautaketa epaimahaiak ahalmena izango du, egoeren arabera, gai den hurrengo hautagaira edo hautagaietara jotzeko.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
Ez dagokio	25	Ez dagokio	20	45